## MERRIM

## GURE ESKUALDEAN

Ortzegunaz geroztik, Oloroneko eta Mauleko espartin egiliak greban ditugu... Grebaren alde agertu dira zindikata guziak... Maulen langileak ibili dira kurri karriketan, ordrerik handienean... Erran daukutenaz, kolejioak eskaini du bere laguntza, kantina bat muntatzeko grebalarien haurreri jaterat emaiteko... Alabainan, haur gachoek ez dute hobenik.

Grève à Mauléon , le collège nourrit les enfants des grévistes – Le patron est la tête, les ouvriers sont les membres, il faudra bien qu'ils s'entendent!

## MAULE

## LAN UZTE

Azken egun horietan langilek lankhiak hustu dutie, soldata eskazez.

Ez da abrekeriarik izan, bena begithartiak beltz dira prefosta.

Barneko chahakoari thai gabe eman behar zaio eta emaiteko, behar da thacheta.

Hau, aldiz, ez da arraberrit zen, lanaren uztez.

Bai nausiak, bai langiliak algarren beharra badie.

Ororek Jinko maitia Aita beitie, anaie direla ezagutu behar die, arren, algar euthelegatu behar, lehen bai lehen, eta ez erran: « hi handi, ni ere bai ».

Bi artian khorpitz bat egiten die.

Nausia buria da, langiliak membroak

Buria manhazale, bestiak obedizale. Batak bestiaren houna bilha dezala, khorphitza bouapo joan dadin.

Bestelan biak errekalat joanen dira, goiz edo berant.

Bestorduz, membroak greban jarri ziren, estomakaren koun tre, bai otsez, hau auher zito bat zela eta oro bere saietarat biltzen zutiala.

Laster membroak, hil ziren, odol faltan. Nausiaren lana ez da ageri, bena batezpadakoa da estomakana bezala.

Hounek ukhena oro khorphitz orotara hel erazten du.

Nausiak ere ukhenetik pharte emaiten du, zougn orduz ez phartia aski handi.

Ogendant ez badeio « minimum »-a, gutien gutiena, eskentzen, hots ouneski bizitzekoa bederen.